


Euskal Administrazioen sarrera arruntak %12,0 hazi ziren 2007an, eta gastua %10,5

2007ko abenduaren 31n finantza-zorra 3.110 miloi euro ziren, BPGren % 4,7.

2007ko ekitaldian, Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal Administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) gastu arruntak %10,5 hazi ziren, Eustatek emandako datuen arabera. Gastu arrunta 12.224,0 milioi euro izan zen; sarrera arruntak 15.974,9 milioi, urteko hazkunde tasa, 2006.aren aldean, %12,0.

Ondorioz, eragiketa arrunten saldoa (sarrera arruntak ken gastu arruntak) 3.750,9 milioi izan zen, aurreko urtean baino %17,2 gehiago.

Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2007 urtea (%)



Iturria: EUSTAT

Zerga sarrerak –sarrera arrunt guztien %89,8- %9,5 hazi ziren. Zerga zuzenak hazi ziren gehien eta horien artean PFEZtik eratorriak (%16,1) eta sozietate-zerga (%20,9); udal zergak neurritsuago (%7) eta hazkunderik txikiena BEZen (%3,3).

Gastu arruntetan hazkunderik txikiena Pertsonal gastuetan (%7,8) oraindik ere; gainerako atalak %10en gainetik hazi ziren. Oro har, gastu arruntaren hazkundera %10,5ekoa izan zen; kontuan hartuz sarrera arrunten hazkundera handiagoa izan zela (%12,0), azkenean 2007an eragiketa arrunten saldoan %17,2ko hazkundera dugu.

Kapital eragiketetan (inbertsioak eta transferentziak) sarrerak %-14,2 gutxitu ziren eta gastuak %11,6 hazi.

Kapital-eragiketen saldo honek, gehi lehen aipatutako eragiketa arruntenak 1.581,8 milioi euroko ez-finantzako aurrekontu-saldoa eman zuen, 2006an baino 248 milioi gehiago.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2007-2006

mila euro	2.006	2.007	Δ %
SARRERAK GUZTIRA	14.878.975	16.420.090	10,4 %
Eragiketa Arruntak	14.267.565	15.974.866	12,0 %
-Zerga Sarrerak	13.092.456	14.340.706	9,5 %
PFEZ	3.825.153	4.439.897	16,1 %
Sozietate-zerga	1.693.124	2.046.705	20,9 %
BEZ	4.696.740	4.852.690	3,3 %
Zerga Bereziak	1.468.286	1.520.359	3,5 %
Udal-zergak	616.355	659.243	7,0 %
Bestelako Zergak	792.798	821.813	3,7 %
-Bestelako sarrera arruntak	1.175.109	1.634.160	39,1 %
Kapital-eragiketak	333.562	286.322	-14,2 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.601.127	16.261.188	11,4 %
Finantza-eragiketak	277.848	158.902	-42,8 %
GASTUAK GUZTIRA	14.022.084	15.413.989	9,9 %
Eragiketa Arruntak	11.066.952	12.224.007	10,5 %
Langileria Gastuak	2.817.550	3.036.579	7,8 %
Transferentzia Arruntak	4.277.725	4.735.966	10,7 %
Bestelako Gastu Arruntak	3.971.677	4.451.462	12,1 %
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	2.200.610	2.455.336	11,6 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	13.267.563	14.679.343	10,6 %
Finantza-eragiketak	754.521	734.646	-2,6 %
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	3.200.613	3.750.859	17,2 %
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	1.333.564	1.581.845	18,6 %

Iturria: EUSTAT

2007ko abenduaren 31n Euskal Administrazioen zor bizia 3.110,1 milioi euro ziren, 2006.an baino %-7,48 gutxiago. Azken urtean amortizatu beharreko zorretik 368,4 milioi amortizatu ziren, baina 117,1ko zor berriak egin ziren; azken zorra 251,3 milioi eurotan murriztu da 2006.aren aldean

BPGren gainean, Euskal Administrazioen finantza-zorrak murriztuz iraun zuen, 2006ko %5,4tik 2007ko %4,7ra.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2007. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	15.974.866	8.961.497	2.695.008	8.323.703	5.011.078
GASTU ARRUNTAK	12.224.007	7.195.401	2.403.120	7.166.682	4.475.224
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	3.750.858	1.766.096	291.888	1.157.021	535.854
KAPITAL SARRERAK	286.322	43.249	59.487	194.140	163.439
KAPITAL GASTUAK	2.455.336	995.889	251.378	772.750	609.314
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZIARIOA	1.581.844	813.456	99.997	578.411	89.979
ZOR BIZIA					
(Amortizatzeke 07-12-31)	3.110.100	1.633.769	132.737	1.006.201	337.393

Iturria: EUSTAT

Euskal Administrazioen zerbitzuko pertsonak 106.160 ziren 2007.ean, 2006an baino %2,3 gehiago; haien artean, %69,3 erkidegoko administrazio orokorrekoak ziren; %9,2 foru administrazioetan ari ziren eta gainerako %21,5 administrazio lokaletan. Enplegu-harremanaz, %68,6 langile finkoak ziren.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

+Tlf:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es